

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Ordainketa gogorarazteko jakinarazpena

Kanpezuko Udala bi alditan saiatu da jakinarazten Bidailan Construcciones SL enpresari, hartu agiria daukan posta arrunt bidez, ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta ordaintzeke dauzkan diru kopuruak ordaindu behar dituela; baita 2016ko martxoaren 10ean eta apirilaren 7an gordailututako fidantzen alegazioak ere jar ditzakeela.

Ezin izan zaionez egin jakinarazpen hori, agiri horren testua ALHAOn argitaratzen da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan xedatutako ondorioetarako:

“Egiaztatu ahal izan dugunez, honi dagokion zenbateko hau ordaintzeke daukazu:

KONTZEPTUA	URTEA	ZENBATEKOA	ERREKARGUA	GUZTIRA
HIRI OHZ	2013	407,29	20,36	427,65
HIRI OHZ	2014	439,50	21,96	461,46
HIRI OHZ	2015	446,54	22,33	468,87
Ordaintzekoa, guztira				468,87

Diru kopuru hori 10 eguneko epean ordaindu beharko duzu. Epe hori igaro ondoren ez baduzu ordaindu ordaindu beharrekoa, zorra betearazte bidetik ordainduko da, eta berandutze interesak eta errenergua ere sortuko dira.

Halaber, epe horretan alegazioak aurkeztu ahalko dituzu gordailututako fidantzak (28,80 eta 211,20 euro) konfiskatu izanaren aurka.

Jakinarazpen hau ez da zerga likidazioa, ezpada betebeharrak gogorarazteko modu hutsa; beraz, ez dago aukerarik administrazio errekurtsorik jartzeko haren aurka”

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko apirilaren 19a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO